

LITERATUR SARIAK (LEHIAKETAK)
EGUNERATZEKO PROPOSAMENAK

Pako Aristi, Yolanda Arrieta, Koldo Izagirre
2019, abuztua

Txosten hau hiruron artean landua eta adostua da. Gure eskabideen abiaburua izan litekeela uste dugu, baina ez da dokumentu itxia: ondo legoke lankide guztion onspena izatea.

Galderak, oharrak, zuzenketak eta iradokizunak espero ditugu, beraz.

Literatur lehiaketa tradizionalak, lanak era anonimoan, ezizenez sinatuak aurkeztu behar diren sariak izan dira gure azterketaren gaia.

Lehiaketok eguneratzeko, ezinbestekoa da arau edo oinarriez idazleok daukagun iritzia ematea, hainbat eskubidez eta betebeharez daukagun ikuspegia jakinaraztea. Ez baitago parte hartzailearik gabeko saririk, garrantzizkoa dela uste dugu idazleon iritziak eta interesak agerraraztea lehiaketen eguneratze bat abiatzeko antolatzaileekin elkartzuz eta adostuz.

2019ko deialdiko araudiak erabili ditugu gehienetan. Bi kasutan 2018koak, aurtengoak oraindik argitaratu ez direlako (ez ditugu aurkitu behintzat).

Honela antolatu dugu txostena:

1. Atera ditugun ondorio nagusiak
2. Ondorio nagusietatik proposamen zehatzetara
3. Zenbait lehiaketaren entresakak eta komentario batzuk. Xabier Lete Saria, Ernestina Champourcin Saria, Ignacio Aldecoa Saria, Becerro de Bengoa Saria, Euskaltzaindia BBK Saria, Irun Hiria Sariak, Donostia Hiria Sariak, Iruña Hiria Saria, Blas de

Otero Saria, Gabriel Aresti Saria, Miguel de Unamuno Saria, Julen Azpeitia Saria, Lizardi Saria.

4. Lehen eranskina: Ley de regulación del régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por las administraciones públicas 2003 (13. Artikulua)
5. Bigarren eranskina: Modificación de la ley general de subvenciones 38/2003 (2011ko urtarrilak 1)

1

ATERA DITUGUN ONDORIO NAGUSIAK

1. Elkar argitaletxea editore duten sariek ez dizkiote egile eskubideak kentzen sarituari (Tene Mujika Saria, Mikel Zarate Saria).
2. Edizioa barne duten gainerako sariek kendu egiten dizkiote sarituari bereak izan behar luketen eskubideak (ekonomikoak zein moralak, hots, edizioaren duintasuna segurtatzeko tresnak: iritzi eta proposamen eskubideak liburuaren produkzio prozesuan).
3. Edizioa beretzen duten sariek ez dute adierazten non argitaratuko duten (Tene Mujika Sariak eta Mikel Zarate Sariak bai).
4. Sariaren edizioa antolatzaileek berek egiten dutenean ohikoa da liburuak ikusgarritasunik ez edukitzea: urtero azal berdintsuak, promozio eskasa, hala moduzko zabalkundea...
5. Ezein sarik ez du inoiz txertatu arauetan edizioaren kontratu eredurik: egileak ez daki ezertxo ere egiten duen lagapenaren ondorioez.
6. Kutxa Fundazioak kudeatzen dituen Irun eta Donostia Sariak bakarrik agertzen dute sariaren diru kopuru zehatza, garbia. Gainerako guztiek atxikipena egingo zaiola adierazten dute hurrengo lerroan.
7. Kutxa Fundazioak kudeatzen dituen Irun eta Donostia Sariak salbuetsiak daude atxikipenaz (Ogasunak ez die Pertsona Fisikoen Gaineko Zerga aplikatzen), Gipuzkoako Foru Aldundiak hala erabakita. Ez horrela gainerako sariak. Aldundiaren Xabier Lete sariari ere atxikipena egiten dio... besteri salbuespena egin den Aldundi berak.

8. Paperezko edizioa ez ezik, zenbait sarik beretzat hartzen du beste euskarri guztietan argitaratzeko eskubidea ere (ebook, internet, audioliburua...).
9. Zenbait sarik zintzotasun fiskala esijitzen digute irabazitako saria kobratzeko: zergetan eta Gizarte Segurantzian zorrik ez daukagulako ziurtagiriak erakutsi behar ditugu.
10. Zergetan eta Gizarte Segurantzian zorrik gabekoak izateaz gainera, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 13. artikulua ezartzen dituen debekuetan ez gaudelako agiria ere bete behar dugu zenbait saritan, irabazitakoa kobratuko badugu. (Ikus beherago, Lehen eta Bigarren Erantsietan, Ley de Regulación 2003, eta lege horri eginiko eguneratzea 2011n).
11. Lehen azterketa batean behintzat, badirudi zenbait erakundek saria diru-laguntza moduan hartzen dutela gure literatur lehiaketetan. Aipatzen den Lege Orokor horretan, ordea, ez da ageri saria kontzepturik (premio), behin eta berriz ageri den kontzeptua dirulaguntza da (subvención), eta legea, nagusiki, elkarteei, enpresei eta enpresariei zuzendua da. Saria ezin liteke subentzioa izan: amaitutako lanak aurkezten ditugu sarietara, inoren diru-laguntzarik gabe eginak dira. Saria promozioa da, domina bat, eta ez du zerikusirik ekonomikorik izaten obraren eraikuntzan.
12. Antolatzaileek saria subentziotzat hartze horrek dakar hurrengo edizio guztietan "X Saria" aipatu beharra ezartzen duen araua, saria ezinbestekoa izan balitz bezala egileak obra idatzi ahal izateko.
13. Xabier Lete eta Irun Hiria sarietan ez beste guztietan apal samar ageri zaigu Poesia. Eskatzen den lerro kopuruak ez du liburu bat osatzeko ematen, eta ez da erraza bildumatxoak merkaturatzea. Bestalde, lerro kopuru urriak eragin zuzena du sariaren beraren diru kopuruan. Ez dirudi zirkulu horrek onik egiten dionik generoari.
14. Lan pedagogiko handi bat egin beharra dago idazle on artean eta sari on antolatzaileen artean ere, kontzeptuak argituz, gardentasuna ezarriz eta batez ere egilearen figura duintasunera ekarriz. Gaur, 2019 honetan, egileak eskubide guztiak galtzen ditu sari truke, eta funtsean, sariak finantzatzen ditu (zati batean bederen).

ONDORIO NAGUSIETATIK PROPOSAMEN ZEHATZETARA

1. Sariak diru kopuru garbia (irabazleak jasoko duen osoa) azaldu behar dute beren arauetan. Ulertzen dugu kopuru biribilak azaldu nahi izatea titularretan. Kalkulu txiki batzuk eginda lortuko lukete.
2. Antolatzaileek bat egin behar dute idazleekin sariak PFG zergaz urritu ez ditzaten. (Euskal Kulturaren Legea moldatzen hasteko, bidenabar).
3. Sariak ezin dituzte beretu egilearen eskubideak.
4. Sariak, araudiak argitaratzearekin batera, kontratu eredua azaldu behar dute edizioa egiten duten kasuetan.
5. Egileak eskubide ekonomikoak eta eskubide moralak ditu. Edizioaren urrats guztien jakinaren gainean egon behar du, iritzia emateko eta bere obraren duintasuna segurtatzeko.
6. Kontratu eredu hori Lanarteak landutako Kontratu Ereduan izango du oinarri (horretan ari gara), ez egundaino sinatu izan ditugunetan. Kontratu Eredua idazle guztien eskura egongo da, Lanarteako bazkideak izan edo ez, autonomoak izan edo soldatapekoak izan.
7. Editatuko duen lana egilearekin harremandua, duina eta behar bezalako promozioarekin merkaturatuko dela bermatu behar du sariak.
8. Antolatzaileek arauetan eman behar dituzte, denon ezagutzera, epaile izango direnen izenak.
9. Sariak genero berdintasuna bermatu behar du epaileetan.
10. Aurkeztutako lana erretiratzeko eskubidea dauka egileak.
11. Irabazleak obra literario bat aurkezten du. Ez du bestelako agiririk azaldu behar irabazi duena jasotzeko. Legea agertu zenetik, 2003tik hona, asko aldatu da egoera ekonomikoa, eta ondorioz baita gizartearen funtzionamendua ere. Idazle batzuek, adibidez, baja ematen dute Gizarte Segurantzian aldizka. Nola frogatuko dute ez dutela harekiko

zorrik, ez badaude hartan alta emanik? Nolako zorbakotasun agiriak aurkeztu behar ditu gela bat alokatuta bizi den idazleak?

12. Arauetan aipatu ohi den lege hori, bestalde, subentzioez ari da, ez sariez. Sariak ez du ezer ez inor subentzionatzen.
13. Irabazlearen eskubidea da sari banaketara joan behar duen ala ez erabakitzea.
14. Sari banaketa egun bateko "boom" hutsala izaten da gehienetan gaur egun. Saritutako lana eta idazlea publikoari modu artistikoan erakusteko kultur-ekitaldi bihurtu behar genuke denon artean sari banaketa (bere aurrekontu propioarekin). Zenbaitetan genero bat baino gehiagoko sariak banatzen dira ekitaldi berean. Beste molde bat merezi du literaturak, aurkezpenak egin behar lirateke, idazlearekiko harremana sortu, irakurzaletasuna zabaldu, kultur saio atsegin bana bihurtu zaharkitutako zeremonia hori. Eta guztiak epe baten barruan hala ere, sariaren itzala desegin ez dadin (X Sarien astea, asteburua, hilabetea...).
15. Saria ez da beka bat, sarituak inoren laguntzarik gabe egin du bere obra. Bere gain edo beste editorial batean egindako edizioetan ez du zertan saria derrigor aipatu. Nahi badu bai, nahi ez badu ez.
16. Poesia generoa duindu egin behar dugu sarietan, behar bezalako garrantzia eta zabalkundea izan dezan.

3

ZENBAIT LEHIAKETAREN ENTRESAKAK ETA KOMENTARIO BATZUK

3.1

ALDUNDIEK ANTOLATUTAKO LEHIAKETAK

XABIER LETE SARIA
Gipuzkoako Foru Aldundia

Sari bakarra egongo da, 12.000 euro gordinekoa, eta likidazioa indarrean dagoen zerga alorreko legeriaren arabera egingo da. Horrez gain, irabazleari garaikur artistiko bat emango zaio.

Gipuzkoako Foru Aldundiak kontradikzio bat agertzen du berak antolatutako sari hau dela eta: zerga alorreko legediak agintzen du kenketa egitea kopuru osoari (ondo legoke argi eta garbi azaltzea hori), baina Aldundiak berak salbuespen bat egin zuen, indarrean jarraitzen zuena 2018an: Irun Saria / Kutxa Kultur Fundazioa sarietarako zein Donostia Hiria / Kutxa Kultur Fundazioa sarietarako, bien arauetan bertan adierazten denez, "Gipuzkoako Foru-Aldundiak egindako salbuespenari esker, Sari hauek ez daude P.F.E.Z. zergari atxikiak". Aldundiak, ez dauka Fundaziorik kulturaren? Zergatik ez dauka ba? Sariak egileak jasoko duen kopuru zehatza azaldu behar du deialdian.

Saritutako obra poesian espezializatutako argitaletxe ospetsu batek argitaratuko du, edizio zaindu batean. Xabier Leteren obra eta oroimenaren garrantzia kontuan izanik, sari honen edizio desberdinetan saritutako lanak argitaratzeko bereziki sortu den bilduman argitaratuko da.

Zein argitaletxe da espezializatua poesian? Eta ospetsua? Zer da edizio zaindu bat? Non dago, nola du izena, nolako ezaugarriak ditu?

Saria jasotzen duen egileak, eskubidea du:

- a) Bere obraren 100 ale hartzeko.
- b) Sariari dagokion diru-kopurua jasotzeko, horrekin bai imprimaketaren eta bai prozesu digitalean edo/eta Interneten bitartez argitaratzearen jabetza eskubideak beteta geldituko direlarik

Ez, jabetza eskubideak ez dira "beteta geratuko", sariak ezin du egile eskubideen ordezkari bat izan. Xabier Leteren sariko onartezinak banan bana erantzen ahal zaizkio Gabriel Celaya sariari.

Saria 2.000 eurokoa izango da modalitate bakoitzeko. Zenbateko horri dagokion atxikipena egingo zaio.

Ez da onargarri atxikipena literatur sarietan, aurretik azaldu ditugun arrazoiengatik.

Arabako Foru Aldundiak argitaratu ahal izango ditu saritutako lanak, epaimahaiak epaia eman eta hamabi hilabeteko epean; hala egin ezkerro, edizio kontratu bat sinatuko da. Lana argitaratzeak ez du inolako ordainketa sariaz lortutakoaz gain. Baldin egileek argitalpena beren kabuz egin nahi badute, berariazko baimena eskatu beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari, eta betiere lana saritua izan dela aipatu beharko da.

Sei hilabeteko epea nahikoa da liburu bat publikatzeko. Egile eskubideei uko egiten diegun kontratuak onartezinak dira. Egile eskubideak kobratuko ditu egileak, urteko likidatuko zaizkio. Edizio kontratua nolakoa den jakin behar luke egileak aldeaz aurretik.

Baldin egileek argitalpena beren kabuz egin nahi badute, berariazko baimena eskatu beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari, eta betiere lana saritua izan dela aipatu beharko da.

Ez dago argi: baimena eskatu behar badu, suposatzen da eskabideak baietza edo ezetza jaso dezakeela. Egileak bere kasa publikatu nahi badu, aurretiaz *abisatu egin beharko diola* Aldundiari jarri behar lukete araudian.

Oharra:

Aurkezteko eskatzen duten bertso kopuruaz zalantzak ditugu: 500-700 bitarteko lerro kopurua eskatzen baitute, ez da liburu estandar bat argitaratzeko nahikoa. Guk 1000-2000 arteko lerro kopurua eskatzea proposatzen dugu. Horrela, igo egin beharko lukete sariaren kopurua. Poesia oso bazterrekotzat dauka Arabako Foru Aldundiak ipuinaren eta saiakeraren aldean.

Arabako Foru Aldundia

Saria 6.000 eurokoa izango da modalitate bakoitzerako. Zenbateko horri dagokion atxikipena egingo zaio.

Arabako Foru Aldundiak argitaratu egin ahal izango ditu saritutako lanak, epaimahaiak epaia eman eta hamabi hilabeteko epean; hala eginez gero, edizio kontratu bat sinatuko da. Lana argitaratzeak ez du eragingo inolako ordainketarik sariaz lortutagoaz gain. Baldin eta egileek argitalpena beren kabuz egin nahi badute, berariazko baimena eskatu beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari, eta betiere lana saritua izan dela aipatu beharko da.

Ernestina de Champourcin Sarirako iradoki ditugun aldaketa berdinak proposatzen ditugu honetan ere.

BECERRO DE BENGUA SAIKERA SARIA

Arabako Foru Aldundia

Saria 4.000 eurokoa izango da modalitate bakoitzerako. Zenbateko horri dagokion atxikipena egingo zaio.

Arabako Foru Aldundiak argitaratu egin ahal izango ditu saritutako lanak, epaimahaiak epaia eman eta hamabi hilabeteko epean; hala eginez gero, edizio kontratu bat sinatuko da. Lana argitaratzeak ez du eragingo inolako ordainketarik sariaz lortutagoaz gain. Baldin eta egileek argitalpena beren kabuz egin nahi badute, berariazko baimena eskatu beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari, eta betiere lana saritua izan dela aipatu beharko da.

Ignacio Aldekoa eta Ernestina de Champourcin sarietarako esanak honetarako ere.

Oharra:

Arabako Foru Aldundiak hiru sari dauzka literaturan, hiru diru kopuru ezberdinekin. Badirudi literatur generoak sailkatuak daudela, ez jakin zeren arabera: Poesia 2.000 baloratzen da, Ipuina 6.000, eta Saiakera (ehun orri) 4.000... Generoak berdin tratatu behar dira. Denak 6.000 eurotan jartzea proposatzen dugu, eta 10.000tan balitz hobeto.

3.2

BANKUAK TARTEKO DITUZTEN LEHIAKETAK

EUSKALTZAINDIA-BBK SARIAK

Idazle gazteentzat (10-15 urte bitartekoak)

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxak, urtebeteren barruan, sarituriko lanen argitalpen-eskubidea izango dute.

Argitalpena osokoa edo zatikakoa izan daiteke, baina honen berri aurretiaz eman beharko diote egileari.

Eta egilearen iritzia eta oniritzia jaso beharko dute, noski.

Argitalpenak ez du egile-eskubiderik izango, hau sariaren barruan baitago.

Egile-eskubideek ezin dute sariaren barruan egon, Egilearenak dira beti, eta errefusatu ezin litekeen eskubidea da. Jabego intelektualak baditu bere eskubideak: ekonomikoak eta moralak. Sakondu egin behar dugu, hala ere, adin txikikoekin hartu beharreko jokabideaz. Konplikatua da.

IRUN HIRIA SARIAK (Poesia eta Nobela)

Kutxa Kultur Fundazioa

Kutxa Fundazioak Epaimahai bana izendatuko du sail bakoitzerako, eta horien erabakia apelaezina izango da. Literatura Lehiaketa honetan parte hartze hutsak oinarri erabateko onespena adierazten du. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko gorabeheraren bat sortzen bada, sailean saileko Epaimahaiak ebatziko du.

Argiagoa litzateke deialdiak jakinaraziko balu arauetan bertan epaimahaia nork eta nork osatuko duten.

Egileak edozein unetan eduki behar luke lehiaketara bidalitako lana erretiratzeko eskubidea.

Kutxa Fundazioak beretzat gordetzen du, eskusiban, epai-egunetik aurrera kontatzen hasi eta gehienez ere sei hilabeteko epearen barruan, lan sarituak argitaratzeko eskubidea (zuzenean edo beste argitaletxe baten eskutik). Aipaturiko epealdi hori igaro ondoren, egileek askatasun osoz erabili ahal izango dituzte beren lanak, baina, obra horien hurrengo argitalpenetan, irabazitako sariaren aipamen zehatza jaso beharko da.

Sei hilabeteko epe hau ezarri behar litzateke gehienezkotzat sari guztietan.

Hala ere, egileak eduki behar luke eskubidea (eskubide morala) liburuaren prozesua hurbildik jarraitzeko eta behar bezala aterako dela kontrolatzeko.

Kutxa Fundazioak Sevillan inprimatzen ditu lanok aspaldion (Argitu beharra: edizio zigilua ere ez ote da hangoa?)

Arauk ez dute argitzen liburuaren salmentak egile eskubideak errespetatuko dituen ala ez.

Arautan egon behar luke kontratu ereduak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako salbuespenari esker, Gipuzkoako egoiliarrentzat sari hauek ez daude P.F.E.Z. zergari atxikita.

Ondo legoke Gipuzkoak Aldundiak salbuespen hau aplikatzea bere buruari Xabier Lete Sarian.

Ondo legoke Gipuzkoako Foru Aldundiak salbuespen hau aplikatzea Gipuzkoako sari guztiei (literaturakoak izan edo ez).

Ondo legoke Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiek eta Nafarroako Gobernuak salbuespen hau sari guztietara aplikatzea (literaturakoak izan edo ez).

DONOSTIA HIRIA SARIAK (Ipuina eta Antzerkia)

Kutxa Kultur Fundazioa

Irun Hiria sariaren arau berdinak ditu, hartaz esandakoak banan-banan dagozkio honi ere.

3.3

UDALEK ANTOLATUTAKO SARIAK

IRUÑA HIRIA SARIA (Poesia)

Nafar Ateneoa / Iruñeako Udala

Lehiaketako modalitate linguistiko bakoitzean sari bat emanen da, 3.000 euroko diruzukidura izanen duena. Kopuru horri legearen arabera dagokion PFEZ atxikiko zaio. Sariaren barruan dago, baita ere, lan saridunaren argitalpena.

Atxikipenik ez dagokio, saria bada.
 Ez ditu egile eskubideak aipatzen.
 Edizio kontratuak arauotan egon behar luke txertatua.

Egileak konpromisoa hartzen du 2019ko azken hiruhilekoan eginen den sari-banaketara bertaratzeko. Ekitaldi horretara ez bertaratzea ezinbesteko arrazoiren batengatik baino ez da justifikatuko.

Eta egilea azaltzen ez bada, zer egingo zaio, saria kendu? Sari banaketak kultur ekitaldi bihurtu behar ditugu, obraren, egilearen eta publikoaren mesederako antolamendu.

Hiru pertsonak osatuko dute Epaimahaia eta haien izenak sariaren epaia ematen denean emanen dira jakitera.

Ez da onargarri.

BLAS DE OTERO SARIA (Poesia)
 Bilboko Udala

Saria 5.500 euro gordinekoa da, modalitate bakoitzean (euskara eta gaztelania): Diru kopuru horri dagozkion atxikipenak egingo zaizkio, indarrean dauden arauen arabera (Espainiar estatuko egoiliarrentzat Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta atzerriko egoiliarrentzat Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga).

Kopuru hori gordina bada, saria ez da 5.500 eurokoa.
 Egileak jasoko duen diru kopuru zehatza jarriko da,
 netoa, alegia, ez gordina.

Blas de Otero Fundazioak eta Bilboko Udalak bere gain hartzen ditu saritutako lanen ustiapen eskubideak, emandako sariaz gain ezer ordaindu barik, saria bera izango baita egingo den ordainketa bakarra eta osoa; horretarako egileek hitzematen dute:

Saria ez baina egilearen eskubide ekonomikoen erosketa dugu hau. Eskubide horiek, alabaina, ukaezinak dira.

Saritutako lanak argitaratzeko, banatzeko eta salgai jartzeko eskubideak lurralde muga barik eta legez ezarritako gehieneko eperako lagaren kabuz edota argitaletxe pribatu zein publiko batekin egindako hitzarmenaren bidez, egoki deritzoten hainbat argitalpenegiteko. Argitalpen bakoitzeko ale-kopurua ere erabakiko dute.

Nahi beste edizio egin litzake udalak, beraz. Kontratua erakutsi behar da. Egileak ezin du geratu inolako kontrolik gabe edizioaren gainean (eskubide moralak).

Bilboko Udalari eta Blas de Otero Fundazioari eskumena ematen dietela saritutako lanak beste hizkuntza batzuetara itzultzeko, jatorrizko hizkuntzakoak ustiatzeko eta erabiltzeko dituzten eskubide berberekin.

Bilboko Udalak, zenbat hizkuntzatarara itzultzeko asmoa du? Zein dira bere kontaktuak gaztelaniazko, portugesezko, frantsesezko, ingelesezko, italierazko, alemanerazko edo katalanerazko editoreekin? Zeintzuk dira arauak aipatzen dituen hizkuntza horiek? Eskumen horrek ez du ezer konkreturik zehazten eta egilea zehaztasun-ez horren menpeko geratzen da.

Saritutako pertsonak Espainiako lurraldean egoitza fiskala badu, saria jaso aurretik honako hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Zerga-betebeharrak ordainduta dituela egiaztatzen duen ziurtagia, hasitako urtean administrazio eskudunak egina, baita Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria ere, hasitako urtean Diruzaintza Nagusiak egina.

Ez da onargarri. Irabazleak nahi duen eran erabili lezake sarietako dirua, baita zergak ordaintzeko ere. Idazle batzuk baja eman behar izaten dute Gizarte Segurantzaren tarteka, bizi ahal izateko. Baja emanik, ez du ordaindu beharrik.

b) Erantzukizunezko adierazpena, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 24-2. artikulua ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela adierazten duena (erantsitako ereduaren arabera).

Ikus Lehen eta Bigarren Eranskinetan 38/2003ko lege horren 13. atala.

c) Bilboko Udalaren aldetik, kontzeptua edozein izanda ere, inoiz ordainketarik jaso ez dutelako Hartzekodunen Erregistroan inskribatuta agertzen ez diren pertsonak, “Hartzekodunen Fitxa” behar bezala beteta aurkeztu beharko dute (emango zaien ereduaren arabera). Horrekin batera NAN/IFZ/pasaportearen eta dirua sartuko den

bankukontuaren titulartasuna egiaztatzen duen edozein agiri ere aurkeztu beharko dituzte.

Gaztelaniaz argiago idatzia daukagu: Si no han recibido nunca un pago del Ayuntamiento de Bilbao por cualquier concepto y, por lo tanto, no figuran inscritas en el Registro municipal de Acreedores deberán presentar, debidamente cumplimentada, la "Ficha de Acreedores" (según modelo que se les facilitará) a la que se le adjuntará el DNI/NIF/Pasaporte, y cualquier documento por el que quede acreditada la titularidad de la cuenta bancaria donde deba realizarse el ingreso.

Tramite burokratikoak erraztu egin behar dira.

Saritutako pertsonak egoitza fiskala ez badu Espainiako lurraldean, a) beharrear, "Egoitza Fiskalaren Ziurtagiria", egoitza duen nazioan eskumena duen agintariak egina, aurkeztu beharko du.

Tramite burokratikoak erraztu egin behar dira.

GABRIEL ARESTI SARIA

Bilboko Udala

Blas de Otero Sariko arau berdintsuak errepikatzen dira, eta gure proposamena bere horretan mantentzen dugu.

Eskaintzen duten dirua 3.500 euro gordinekoa da. Gure proposamena bere horretan mantentzen da. Eta gehigarri bat: sarien diruak ere bateratu egin behar dira, batean 1.000 izan litezke, bestean 6.000, bestean 3.000... anabasa hau antolatu beharra dago, adibidez gutxieneko bat ipiniz, beti ere goiko zifretara joz. Hala ere, Blas de Otero sarian ageri ez den haxe daukagu Gabriel Arestirenean:

(Bilboko Udalak bere gain hartzen ditu) Saritutako lanak argitaratzeko, banatzeko eta salgai jartzeko eskubideak lurralde muga barik eta legez ezarritako gehieneko eperako lagatzen dituztela, merkaturatze sistema eta argitaratze mota eta euskarri guztietarako. Lagapen hori Bilboko Udalari egingo zaio, epaia ematen denetik hasi eta urte biko eperako.

“Legez ezarritako gehieneko epe” hori, nongo legetan ageri ote da? Jabego intelektualarenean aztertu beharko dugu.

Udalak beretzat hartzen ditu merkaturatze-sistema oro eta diren euskarri guztiak (ebook, internet, braille, audioliburu...). Ez da onargarri.

Bi urte behar dute beren jabetza gauzatzeko... Sei hilabetera ekarri behar dugu epea.

MIGUEL DE UNANUMO SARIA (Saiakera)

Bilboko Udala

Honek ere Bal de Otero Sariaren eta Gabriel Aresti Sariaren sariaren klausula berdinak dauzka. Handiegiak direla iruditzen zaigu.

MIKEL ZARATE SARIA (Ipuina)

Lezamako Udala

Sari bakarra emango da: 3.000 eurokoa (zenbateko gordina).

Beraz, saria ez da 3.000 eurokoa.

Elkar etxeak argitaratuko du eleberri edo ipuin saritua, saria jakinarazten denetik sei hilabeteko epean, behar diren marrazkiez horniturik. Alabaina, idazlea izango da lanaren jabea eta ohiko moduan ordainduko dizkio argitaletxeak egile-eskubideak.

Eredugarri.

Hala ere, kontratua erakutsi behar da aldez aurretik.

JULENE AZPEITIA

Zumaiako Udala

Zumaiako Udalak beretzat gordetzen du saritutako lanak argitaratzeko eskubidea, baina argitaratzekotan, epaimahaiak ebazpena eman eta urtebeteko epearen barruan argitaratu behar du, bai bere kabuz, bai beste batzuen bidez. Lehenengo argitalpenaren ustiapen eskubideak Zumaiako Udalarenak izango dira.

Hau argitu egin behar da, sei hilabeteko epea jarri, eta onena argitaletxe batekin hitzarmena egitea da argitalpen homologatua egiteko eta aleak ongi banatzeko, bestela saria ematen den herritik ez dira liburuok ateratzen, ezin aurkitu dira beste inon.

Eta argitalpen-ustiaketak idazlearenak izango dira beti (berari dagokion proportzioan).

LIZARDI SARIA
Zarauzko Udala

Saria bakarra izango da, 4.000,00 eurokoa. Epaia 2019ko urtarrilean emango da jakitera. Sariaren diru kopuru honek indarrean dagoen legedian ezarritako atxikipena izango du, horrela badagokio.

Beraz, saria ez da 4.000 eurokoa. Egileak jasoko duen diru zehatza jarriko da, netoa, alegia, ez gordina.

Saritutako lana argitaratu egingo da. Zarauzko Udalak 2.500 ale kaleratuko ditu, eta argitaletxeak, gainera, bere edizio propioa argitaratuko du. Argitalpena sari banaketa egunean kaleratuko da, 2019ko apirilean, hain zuzen ere.

Argitu beharra dago zer den Zarauzko udalaren argitalpen hori, eta zer den argitaletxe batek egiten duena. Zarauzko udalak argitaletxeari erosten ote dizkio, edo argitalpen propio bat egiten ote du? Nolanahi ere, Zarauzko udalaren aleak bertako ikastetxeetan banatzen dituzte opari.

Lizardi Sariak 40 urte beteko ditu bi urte barru. Orduko gizartea ez da gaurkoa: orain berrogei urte, haur eta gazte literaturako liburuak behar ziren, eskasia zegoen. Literaturak bide luzea egin du geroztik, orain liburu asko dago, aukera handia dute haurrek, gazteek, gurasoek, irakasleek. Liburu bat eskoletan banatzeak irakurzaletasuna sustatzen zuen 1980ko hamarraldian, gaur ez.

Lizardi Sariak berritu egin behar lituzke arauak. Udalak herri barruko banaketan erabiltzen duen dirua saritutako lanaren edizioa hobetzeko erabiltzea

iradokiko genioke, sariaren beraren garrantzia handituz: irudi ugari, zainduak, kalitatezko papera, tapa gogor ikusgarriak, publizitatea... Liburuak doan banatzeak, funtsean, balioa kentzen dio literaturari. Baita liburuaren munduari ere, produktua banalizatzen duenez.

Zarauzko Udalak saritutako lana digitalki argitaratzeko eskubidea izango du, liburu elektronikoetarako.

Digitalki argitaratzeko beste kontratu bat egin behar da, aparte. Alegia, paperezko edizioek ere kontratu bana behar luketela.

Saritutako lanaren egile eskubideak Zarauzko Udalaren esku geratuko dira hurrengo hamar urteotarako, ohiko liburuan zein liburu elektronikoan argitaratu ahal izateko. Hamar urte eta gero, lanaren idazleak berreskuratu egingo ditu egile eskubideak

Arau hau errebisatu beharra dago, arestian aipaturiko arrazoiengatik.

Zarauzko Udalak saritutako lanak ustiatzeko eskubidea izango du, sariaren zenbatekoaz gain bestelako ordainketarik egin gabe, horixe izango baita ordainketa bakarra eta guztizkoa; beraz, egileek hitz ematen dute ondorengoetarako:

Zarauzko udalak ez du eskubiderik izango lanak horrela ustiatzeko, sariaz aparte egile eskubideak ordaindu beharko dizkio egileari.

- a. Mugarik gabeko epean eta argitaratu zein komertzializatzeko erabiltzen den modua edozein dela ere, lanak erreproduzitu, banatu eta saltzeko eskubideak Zarauzko Udalaren esku uzten dituztela.

Egileak ez ditu udalaren esku utziko lanak erreproduzitu, banatu eta saltzeko eskubideak. Literatur liburuak saldu, udalak?

- b) Udalak eskubidea du bere kabuz edo argitaratzeko zerbitzu publiko edo pribatuaren bitartez, beharrezko iruditzen zaizkion edizioak argitaratzeko; edizio bakoitzerako ale kopurua Udalak erabakiko du.

Udalak ez du eskubiderik bere kabuz argitaratzeko eta nahi dituen edizioak egiteko, ezta ale kopurua

erabakitzeko ere, idazleari baimenik eskatu gabe, honekin adostu gabe.

Arautegi honetan jasotzen ez den gorabeherarik sortzen bada, sariketara aurkezten diren idazleek auzi guztiekiko erabakia erakunde antolatzailearen esku utziko dute.

Auzirik baldin badago idazlearen eta antolatzaileen artean, auzi hori alderdi bien artean hitz egin beharko da. Antolatzaile batek arauak ezartzea normala da, eta partaideak arau horiek onartzea ere bai, parte hartu nahi badu. Hemen zehaztu egin behar dira: legea bera, antolatzaileek zertan bai eta partaideek zertan bai. Eta zehaztutako hori arauetan agertu.

4

LEHEN ERANSKINA
LEY DE REGULACIÓN DEL RÉGIMEN JURÍDICO GENERAL
DE LAS SUBVENCIONES OTORGADAS
POR LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS

Artículo 13. Requisitos para obtener la condición de beneficiario o entidad colaboradora.

1. Podrán obtener la condición de beneficiario o entidad colaboradora las personas o entidades que se encuentren en la situación que fundamenta la concesión de la subvención o en las que concurren las circunstancias previstas en las bases reguladoras y en la convocatoria.
2. No podrán obtener la condición de beneficiario o entidad colaboradora de las subvenciones reguladas en esta ley las personas o entidades en quienes concorra alguna de las circunstancias siguientes, salvo que por la naturaleza de la subvención se exceptúe por su normativa reguladora:
 - a) Haber sido condenadas mediante sentencia firme a la pena de pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas o por delitos de prevaricación, cohecho, malversación de caudales públicos, tráfico de influencias, fraudes y exacciones ilegales o delitos urbanísticos.
 - b) Haber solicitado la declaración de concurso voluntario, haber sido declarados insolventes en cualquier procedimiento, hallarse declarados en concurso, salvo que en éste haya adquirido la eficacia un convenio, estar sujetos a intervención judicial o haber sido inhabilitados conforme a la Ley 22/2003, de 9 de julio, Concursal, sin que haya concluido el período de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.
 - c) Haber dado lugar, por causa de la que hubiesen sido declarados culpables, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.
 - d) Estar incurso la persona física, los administradores de las sociedades mercantiles o aquellos que ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, en alguno de los supuestos de la Ley 3/2015, de 30 de marzo, reguladora del ejercicio del alto cargo de la Administración General del Estado, de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas, o tratarse

de cualquiera de los cargos electivos regulados en la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, en los términos establecidos en la misma o en la normativa autonómica que regule estas materias.

e) No hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes, en la forma que se determine reglamentariamente.

f) Tener la residencia fiscal en un país o territorio calificado reglamentariamente como paraíso fiscal.

g) No hallarse al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones en los términos que reglamentariamente se determinen.

h) Haber sido sancionado mediante resolución firme con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones conforme a ésta u otras leyes que así lo establezcan.

i) No podrán acceder a la condición de beneficiarios las agrupaciones previstas en el artículo 11.3, párrafo segundo cuando concurra alguna de las prohibiciones anteriores en cualquiera de sus miembros.

j) Las prohibiciones de obtener subvenciones afectarán también a aquellas empresas de las que, por razón de las personas que las rigen o de otras circunstancias, pueda presumirse que son continuación o que derivan, por transformación, fusión o sucesión, de otras empresas en las que hubiesen concurrido aquéllas.

(Apartado 2 honen erredakzioa inkonstituzionala deklaratu zen, ikus beherago)

3. En ningún caso podrán obtener la condición de beneficiario o entidad colaboradora de las subvenciones reguladas en esta ley las asociaciones incursas en las causas de prohibición previstas en los apartados 5 y 6 del artículo 4 de la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación.

Tampoco podrán obtener la condición de beneficiario o entidad colaboradora las asociaciones respecto de las que se hubiera suspendido el procedimiento administrativo de inscripción por encontrarse indicios racionales de ilicitud penal, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 30.4 de la Ley Orgánica 1/2002, en tanto no recaiga resolución judicial firme en cuya virtud pueda practicarse la inscripción en el correspondiente registro.

4. Las prohibiciones contenidas en los párrafos b), d), e), f), g), h), i) y j) del apartado 2 y en el apartado 3 de este artículo se apreciarán de forma automática y subsistirán mientras concurren las circunstancias que, en cada caso, las determinen.

(Apartado 4 honen erredakzioa inkonstituzionala deklaratu zen, ikus beherago)

5. Las prohibiciones contenidas en los párrafos a) y h) del apartado 2 de este artículo se apreciarán de forma automática. El alcance de la prohibición será el que determine la sentencia o resolución firme. En su defecto, el alcance se fijará de acuerdo con el procedimiento determinado reglamentariamente, sin que pueda exceder de cinco años en caso de que la prohibición no derive de sentencia firme.

6. La apreciación y alcance de la prohibición contenida en el párrafo c) del apartado 2 de este artículo se determinará de acuerdo con lo establecido en el artículo 21, en relación con el artículo 20.c) del texto refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por el Real Decreto Legislativo 2/2002, de 16 de junio.

13. Artikulu honek amaieran dakarren oharra:

Téngase en cuenta que se declara la inconstitucionalidad y nulidad de la redacción dada a los apartados 2 y 4 de este artículo por la disposición final 8 de la Ley 39/2010, de 22 de diciembre, por la Sentencia del TC 152/2014, de 25 de septiembre, con el alcance señalado en el fundamento jurídico 6, letra e). Ref. BOE-A-2014-11021.

2003/11/17ko Lege orokor honek amaieran dakarren oharra:

Sobre interpretación conforme a la Constitución de varios preceptos legales puede consultar las siguientes sentencias: Sentencia del TC 130/2013, de 4 de junio. Ref. BOE-A-2013-7206. Sentencia del TC 135/2013, de 6 de junio. Ref. BOE-A-2013-7211.

Eta beste hauxe:

Este texto consolidado no tiene valor jurídico.

Kontuz:

Aurreko oharrek ez diote indarrik kentzen legeari. Publikatu zenetik hona (2003tik 2011 bitarte zehazkiago) sententziek doitu eta eguneratu egin dutela baino ezin da ateratzen ahal "testuak lege indarrik ez duela" horretatik. Funtsean, testu hori baita legearen oinarria.

5

BIGARREN ERANSKINA MODIFICACIÓN DE LA LEY GENERAL DE SUBVENCIONES 38/2003, DE 17 DE NOVIEMBRE

Con efectos de 1 de enero de 2011 y vigencia indefinida, se modifican los siguientes preceptos de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en los siguientes términos:

Uno. Con efectos de 1 de enero de 2011 y vigencia indefinida, se modifican los apartados 2 y 4 del artículo 13 de la Ley General de Subvenciones, que quedan redactados de la siguiente forma:

«Artículo 13. *Requisitos para obtener la condición de beneficiario o entidad colaboradora. (...)*

2. No podrán obtener la condición de beneficiario o entidad colaboradora de las subvenciones reguladas en esta Ley las personas o entidades en quienes concurra alguna de las circunstancias siguientes, salvo que por la naturaleza de la subvención se exceptúe por su normativa reguladora:

a. Haber sido condenadas mediante sentencia firme a la pena de pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas.

b. Haber solicitado la declaración de concurso voluntario, haber sido declarados insolventes en cualquier procedimiento, hallarse declarados en concurso, salvo que en éste haya adquirido la eficacia un convenio, estar sujetos a intervención judicial o haber sido inhabilitados conforme a la Ley 22/2003, de 9 de julio, Concursal, sin que haya concluido el período de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.

c. Haber dado lugar, por causa de la que hubiesen sido declarados culpables, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.

d. Estar incurso la persona física, los administradores de las sociedades mercantiles o aquellos que ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, en alguno de los supuestos de la Ley 5/2006, de 10 de abril, de regulación de los conflictos de intereses de los miembros del Gobierno y de los altos cargos de la Administración General del Estado, de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas, o tratarse de cualquiera de los cargos electivos regulados en la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, en los términos establecidos en la misma o en la normativa autonómica que regule estas materias.

e. No hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes, en la forma que se determine reglamentariamente.

f. Tener la residencia fiscal en un país o territorio calificado reglamentariamente como paraíso fiscal.

g. No hallarse al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones en los términos que reglamentariamente se determinen.

h. Haber sido sancionado mediante resolución firme con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones conforme a ésta u otras leyes que así lo establezcan.

i. No podrán acceder a la condición de beneficiarios las agrupaciones previstas en el segundo párrafo del apartado 3 del artículo 11 de esta Ley cuando concurra alguna de las prohibiciones anteriores en cualquiera de sus miembros.

j. Las prohibiciones de obtener subvenciones afectarán también a aquellas empresas de las que, por razón de las personas que las rigen o de otras circunstancias, pueda presumirse que son continuación o que derivan, por transformación, fusión o sucesión, de otras empresas en las que hubiesen concurrido aquéllas.

(...)

4. Las prohibiciones contenidas en los párrafos b), d), e), f), g), h), i) y j) del apartado 2 y en el apartado 3 de este artículo se apreciarán de forma automática y subsistirán mientras concurren las circunstancias que, en cada caso, las determinen.»

El resto del artículo permanece con la misma redacción.

2021 Urtarrila
Eranskina

- . Diru kopuru zehatza (garbia, ez gordina).
- . Erretentzioaz (Kutxa Fundazioa)
- . Dirua jasotzeko baldintzarik ez.
- . Epaimahikoen izenak (epaimahikoen erabakia baino hilabete pare bat lehenago edo)
- . Aurkeztutakoa erretiratzeko eskubidea azken hilabeta baino lehen.
- . Epaimahaikoen ebazpena: sariaren zergatia, balio literarioa, publiko egitea.
- . Saria emateko zeremonia, literaturaren une eder bat izan dadila.

Epaimahaiaren akta: obraren balioak.

Buruz buruko publiko bat egilearen eta aditu baten artean (idazle, literatur kritikoa, irakasle, liburuzain inplikatu...).

Egilearen sinatzea.